# EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2011IPLE0010
**Eguna:** 2011-06-30
**Ordua:** 19:05-19:30
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | Bildu |
| - Maite Olatziregi Esparza | Bildu |
| - Agin Rezola Laburu | Bildu |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | Bildu |
| - Berta Arocena Vergara | Bildu |
| - Isabel Otero Glorie | Bildu |
| - Raul Redín Hernández | Bildu |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |

**Bertaratu ez direnak**

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea    Hamaikabat

*aldez aurretik ezin dela bertaratu jakinarazi du

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **Udal osoko bilkuren aldizkakotasuna** | **1** | Periodicidad de las sesiones del Pleno |
| **Batzorde informatibo iraunkorren sorrera eta osaketa** | **2** | Creación y composición de las comisiones informativas permanentes |
| **Politiko eta aldi baterako langileen dedikazio eta ordainketen erregimena** | **3** | Régimen de dedicación y retribuciones de los políticos y personal eventual |
| **Udal osoko bilkuraren eskumena den eta organo kolegiatuetan parte hartuko duten ordezkarien izendapena** | **4** | Nombramiento de representantes en órganos colegiados, que sean competencia del Pleno |

| | | |
|---|---|---|
| **Alkatetzako ebazpenen jakinaraztea** | **5** | Conocimiento de las resoluciones del Alcalde |

## Esan-eginak eta erabakiak

**1. Udal osoko bilkuren aldizkakotasuna**

Alkateak honako proposamen hau egin du ohiko Osoko Bilkurak egiteko:

1.- **Ohiko Osoko Bilkurak hileko azkeneko ostegunean, arratsaldeko 19:00etan izango dira.**

Alkateak adierazi du Osoko Bilkurak goizean egin beharrean (aurreko legealdian egiten zen moduan) arratsaldean egitearen aldaketarekin herritarren partaidetza sustatzeko dela eta aldaketa ildo horretan doala.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta esan du aldaketa horrek ez duela biztanleriaren zati baten partaidetza sustatzen, arratsaldeko ordu horretan familia zaintzen dagoelako.

Proposamena bozkatu ondoren, onartu egin da, aldeko 8 botorekin (7 Bildu, 1 Hamaikabat) eta EAJ/PNVren 2 abstentziorekin.

**1. Periodicidad de las sesiones del Pleno**

El Alcalde presenta la siguiente propuesta para celebración de los plenos ordinarios:

1.- **Periodicidad del Pleno ordinario: último jueves de cada mes a las 19 horas**.

Señala el Alcalde que el cambio que se produce de realizar los plenos a las tardes en lugar de a las mañanas, como se venía haciendo en la anterior legistatura, es que desean fomentar más la participación ciudadana y este cambio va en ese sentido.

Interviente la concejal Zorione quien señala que ese cambio no favorece la participación de un segmento de la población que a esa hora de la tarde se dedica al cuidado de la familia.

Sometida a votación la propuesta es aprobada con 8 votos a favor (7 Bildu, 1 Hamaikabat) y 2 abstenciones de EAJ/PNV.

**2. Batzorde informatibo iraunkorren sorrera eta osaketa**

Alkateak honako proposamen hau egin du Batzorde Informatibo Iraunkorren inguruan:

1.- Batzorde Informatiboak ondoren azaltzen diren kideekin osatzea.

**2. Creación y composición de las comisiones informativas permanentes**

El Alcalde formula la siguiente propuesta en relación a las Comisiones Informativas Permanentes:

1.- Conformar las Comisiones Informativas con los siguientes miembros:

2.- Interesatuei jakinaraztea.

2.- Proceder a la notificación a los interesados.

| IZENA / NOMBRE | LEHENDAKARIA/ PRESIDENTE | KIDEAK / MIEMBROS |
|---|---|---|
| **Hirigintza, etxebizitza eta ingurugiroa / Urbanismo, vivienda y medio ambiente** | Andoni Gartzia | Berta Arozena<br>Raul Redín<br>EAJ/PNV<br>H1! |
| **Obrak eta zerbitzuak / Obras y servicios** | Raul Redín | Isabel Otero<br>Andoni Gartzia<br>EAJ/PNV<br>H1! |
| **Ogasuna, ondarea eta berrikuntza / Hacienda, patrimonio e innovación** | Andoni Gartzia | Maite Olatziregi<br>Berta Arozena<br>EAJ/PNV<br>H1! |
| **Kultura eta euskara / Cultura y euskara** | Agin Rezola | Ione Olatziregi<br>Maite Olatziregi<br>EAJ/PNV<br>H1! |
| **Gazteria, jaiak eta kirolak / Juventud, fiestas y deporte** | Ione Olatziregi | Raul Redín<br>Agin Rezola<br>EAJ/PNV<br>H1! |
| **Gizarte Ongizatea eta Migrazioa / Bienestar Social e Inmigración** | Berta Arozena | Isabel Otero<br>Maite Olatziregi<br>EAJ/PNV<br>H1! |
| **Parte-hartzea eta parekidetasuna / Participación ciudadana y paridad** | Isabel Otero | Berta Arozena<br>Ione Olatziregi<br>EAJ/PNV<br>H1! |
| **Hezkuntza / Educación** | Maite Olatziregi | Ione Olatziregi<br>Agin Rezola<br>EAJ/PNV<br>H1! |
| **Pertsonala / Personal** | Andoni Gartzia | Maite Olatziregi<br>Agin Rezola<br>EAJ/PNV<br>H1! |

3.- Batzorde Informatiboen aldizkakotasuna: **hilean behin egingo dira**

3.- Periodicidad de Comisiones Informativas Ordinarias: **una mensual**

4.- Batzorde informatiboen eraketa

4.- Composición de las Comisiones informativas

Informazio Batzorde bakoitza 5 kidek osatuko dute: Bilduko 3k, EAJ/PNVko 1ek eta Hamaikabateko 1ek.

Cada comisión informativa la compondrán 5 miembros: 3 de Bildu, 1 de EAJ/PNV,1 Hamaikabat.

Udalbatzako kideak osatu behar dituzten batzorde bakoitzera atxikitzeko (talde bakoitzaren ordezkari gisa) talde bakoitzeko bozeramaileak alkateari idazki bat zuzenduz egingo da.

La adscripción a cada comisión de los miembros de la Corporación que deben de formar parte de las mismas, en representación de cada grupo, se realizará mediante escrito dirigido por el portavoz de cada grupo al Alcalde.

Irizpenak onartzeari dagokionez, boto haztatua aplikatuko da, hau da, talde bakoitzaren botoa Osoko Bilkuran duen ordezkaritzaren araberakoa izango da.

A los efectos de aprobación de los dictámenes se aplicará el voto ponderado, de modo que el voto de cada grupo será por la representación que tenga en el Pleno.

Irizpena azaldu ondoren, Zorione zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du bere ustez, batzorde gehiegi daudela; horrela, baten batean teknikarien lana metatu egiten da eta besteren batean, ez da teknikaririk esleitu batzorderako.
Imanol Lizarralde zinegotzia bat dator irizpide horrekin.

Tras la exposición del dictamen toma la palabra la concejal Zorione quien manifiesta que en su opinión son demasiadas comisiones, en alguna de ellas se acumula el trabajo de los técnicos y en otra no tiene asignado ningún técnico para la comisión.
Participa del mismo criterio el concejal Imanol Lizarralde.

Proposamena bozkatu ondoren, onartu egin da, Bilduko zinegotzien aldeko 7 botorekin eta 3 abstentziorekin (EAJ/PNVko 2 eta Hamaikabateko 1).

Sometida a votación la propuesta es aprobada con 7 votos a favor de los concejales de Bildu, y 3 abstenciones (2 EAJ/PNV, 1 Hamaikabat).

## 3. Politiko eta aldi baterako langileen dedikazio eta ordainketen erregimena

Alkateak Bilduren proposamena aurkeztu du. Proposamen horrekin egitura politikoaren kostuaren murrizpen esanguratsua egin nahi da, hau da, soldatak murrizteaz gain, batzordeetara bertaratzeagatiko gastuak ezabatuko dira; izan ere, batzordeak arratsaldean egitearekin ulertzen delako horietara bertaratzea politikoek hauteskundeetara aurkeztearekin beren gain hartu duten borondatearekin bat datorrela. Bestalde, adierazi du neurri horiekin 50.000€-tik gora aurreztuko direla aurreikusi dutela, diru-kopuru hori beste premia batzuetara zuzenduz:

## 3. Régimen de dedicación y retribuciones de los políticos y personal eventual

El Alcalde presenta la propuesta de Bildu con la que desean proceder a una reducción significativa del coste de la estructura política, en la que además de rebajarse los salarios, se eliminan los gastos por asistencia a comisiones, dado que al realizarse a las tarde se entienden que esa se corresponde con la voluntaria participación que han adoptado los políticos al presentarse a las elecciones. Señala que con estas medidas estiman que se ahorrarán más de 50.000€ al año que se podrán destinar a otras necesidades:

### 1. ORDAINKETA ERREGIMENA

7/85 Legearen 75 artikuluak aipatutakoari jarraiki, non 2011-2015 legealdian zehar zinegotzien lanaldi motak zehazten diren, ondorengo proposamena luzatzen dut, datorren Osoko Bilkuran bozkatua izan dadin:

### 1. REGIMEN RETRIBUTIVO

Que de conformidad a lo dispuesto en el art. 75 de la Ley 7/85 que regula el régimen de dedicación de los concejales a los efectos de la presente legislatura 2011-2015, vengo a formular la siguiente propuesta que será sometida para su aprobación en el primer pleno que se convoque al efecto:

#### 1.1.- DENBORA OSOKO LANALDI.

Alkateak denbora osoko lanaldia izango du eta bere urteko ordainsaria 28.000 euro gordinak izango dira.

Ordainketa hauek dagozkion zerga betebeharrei lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1.

#### 1.1- RÉGIMEN DE DEDICACIÓN EXCLUSIVA.

El Alcalde tendrá dedicación exclusiva y las retribuciones serán de 28.000 euros anuales brutos.

Estas retribuciones quedarán sujetas a las obligaciones tributarias correspondientes y se contabilizarán con cargo al capítulo 1 del presupuesto de gastos de este

kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

1.2.- DENBORA MURRIZTUKO LANALDIA:

1.2.1. Zinegotziak: denbora murriztuko lanaldia

Maite Olatziregi Esparza izendatzea %33,00eko lanaldi murriztuan.

Ordainketak dagozkion zerga betebeharrei lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

1.2.2. Aldi baterako pertsonala

Joxemi Jiménez Arbizu izendatzea Alkatetzako idazkari %68,50eko lanaldi murriztuan. Urteko ordainsaria 18.900 euro gordinak izango dira.

Ordainketa hauek dagozkion zerga betebeharrei lotuak egongo dira eta Udal honetako gastu aurrekontuaren 1. kapituluaren kargura kontabilizatuko dira.

1.3.- BERTARATU IZANAGATIKO ORDAINKETAK

Ez dira ordainketarik egingo.

1.4.- TALDE POLITIKOEI ORDAINSARIAK

Zinegotzi bakoitzeko 200,00 €/hileko eta talde bakoitzeko 300,00 €/hileko ordainduko dira.

Ordainketa hauek Udal honetako gastu aurrekontuaren 4. kapituluaren kargura

Ayuntamiento.

1.2.- RÉGIMEN DE DEDICACIÓN PARCIAL.

1.2.1. Régimen de dedicación parcial de concejales

Se nombra a Maite Olatziregi Esparza con un régimen de dedicación parcial de 33,00% de la jornada ordinaria.

Sus retribuciones quedarán sujetas a las obligaciones tributarias correspondientes y se contabilizarán con cargo al capítulo 1 del presupuesto de gastos de este Ayuntamiento.

1.2.2. Personal Eventual

Se nombra a Joxemi Jiménez Arbizu para el desempeño de Secretario del Alcalde con un régimen de dedicación parcial de 68,5 % de la jornada ordinaria con retribuciones de 18.900 euros anuales

Estas retribuciones quedarán sujetas a las obligaciones tributarias correspondientes y se contabilizarán con cargo al capítulo 1 del presupuesto de gastos de este Ayuntamiento.

1.3.- PAGO DE ASISTENCIAS

No se establecen pagos.

1.4.- PAGO A GRUPOS POLÍTICOS

Se abonará por concejal 200,00 €/mes y por grupo 300,00 €/mes.

Estas retribuciones se contabilizarán con cargo al capítulo 4 del presupuesto de

kontabilizatuko dira.

gastos de este Ayuntamiento.

Alkatearen azalpenaren ondoren Zorione zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du proposamenak ez dituela harritu, nolabait ulertzen dutela krisi ekonomikoaren testuinguruan baina gehiengo osoa duen gobernu batek oposizioa saritzea behar duela eta proposamen horrekin ez dela zinegotziaren lana kontuan hartzen, udal-taldearena baizik.

Tras la exposición del Alcalde toma la palabra la concejal Zorione quien manifiesta que no les sorprende la propuesta y entienden en parte en el contexto de crisis económica, pero un gobierno con mayoría absoluta necesita que se prime a la oposición y con esta propuesta no se toma en cuenta el trabajo del concejal, sino el del grupo municipal.

Proposamena bozkatu ondoren, onartu egin da Bilduko aldeko 7 botorekin eta kontrako 3 botorekin (EAJ/PNVko 2 eta Hamaikabateko 1).

Sometida a votación la propuesta es aprobada con 7 votos a favor de Bildu y 3 en contra /2 EAJ/PNV, 1 Hamaika bat).

Onartutakoa 2011ko Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauan txertatuko da eta politikoen ordainsarien ordainketari buruzko 7. artikulua ordeztuko du, dagokion aldaketa plantillan ezarriz.

La presente aprobación se incorporará a la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria 2011, y sustituirá el artículo 7 relativo al pago de las retribuciones de políticos, y se incorporará en la plantilla el cambio pertinente.

**4. Udal osoko bilkuraren eskumena den eta organo kolegiatuetan parte hartuko duten ordezkarien izendapena**

**4. Nombramiento de representantes en órganos colegiados, que sean competencia del Pleno**

Alkateak Osoko Bilkurari aurkeztu dio proposamena, honela zehaztuta:

El Alcalde presenta al pleno la siguiente propuesta que se concreta en:

*Lehena:* Udalak parte hartzen duen erakunde ezberdinetarako ondorengo ordezkariak izandatzea:

*Primero:* Nombrar en las distintas instituciones en las que participa este Ayuntamiento a los siguientes representantes:

| ERAKUNDEA/ INSTITUCIÓN | ORDEZKARI TITULARRA/ REPRESENTANTE TITULAR | BERE ORDEZKOA/ SUPLENTE |
|---|---|---|
| ASTIGARRAGA LANTZEN | - Andoni Gartzia Arruabarrena<br>- Maite Olatziregi Esparza<br>- Agin Rezola Laburu<br>- Berta Arozena Bergara | ---- |

| | | |
|---|---|---|
| SAGARDUN PARTZUERGOA | - Andoni Gartzia Arruabarrena | - Maite Olatziregi Esparza |
| SAN MARKOS MANKOMUNITATEA | - Raul Redín Hernández<br>- Andoni Gartzia Arruabarrena | - Isabel Otero Glorie |
| AÑARBEKO MANKOMUNITATEA | - Andoni Gartzia Arruabarrena | - Raul Redín Hernández |
| BEHEMENDI | - Agin Rezola Laburu | - Ione Olatziregi Mendiorotz |
| EUDEL | ---- | ---- |
| ELKARKIDETZA | - Andoni Gartzia Arruabarrena | - Berta Arozena Bergara |
| ESKOLA KONTSEILUA | - Maite Olatziregi Esparza | - Ione Olatziregi Mendiorotz |
| JUNTA CONCERTACION ERGOBIA | - Andoni Gartzia Arruabarrena | - Berta Arozena Bergara |

*Bigarrena:* Ebazpen honen berri ematea aipatu erakundeei; Udal Batzarraldi plenarioa jakinaren gainean jar dadila egiten den lehenengo bilkuran, eta argitara dadila, era berean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

*Hirugarrena:* Ebazpen hau Alkatetzaren Ebazpen Liburuan idatzaldatu beharko da eta indarrean, daraman dataren biharamunean sartuko da.

*Segundo:* Comunicar esta resolución a los órganos correspondientes, dése cuenta al Ayuntamiento Pleno en la primera sesión que celebre y publíquese en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.

*Tercero:* La presente resolución deberá transcribirse en el Libro de Resoluciones de la Alcaldía y tendrá efectividad a partir del día siguiente al de su fecha.

Ondoren, Astigarraga Lantzen SAri dagokionez, alkateak adierazi du hasierako proposamena aldatuko dutela eta Astigarraga Lantzen SAko Administrazio Kontseiluan EAJ/PNVko ordezkari 1 eta Hamaikabateko beste

A continuación señala el Alcalde que en relación a Astigarraga Lantzen S.A, van a modificar la propuesta inicial y va a dar cabida en el Consejo de Administración de Astigarraga Lantzen S.A., a 1 representante de EAJ/PNV, y otro de

ordezkari 1 hartuko dutela.

Hamaikabat.

Proposamena bozkatu ondoren, onartu egin da Bilduko zinegotzien aldeko 7 botorekin eta 3 abstentziorekin (EAJ/PNVko 2 eta Hamaikabateko 1)

Sometida a votación la propuesta es aprobada con 7 votos a favor de los concejales de Bildu y 3 abstenciones(2 EAJ/PNV,1 Hamaikabat)

**5. <u>Alkatetzako ebazpenen jakinaraztea</u>**

**5. <u>Conocimiento de las resoluciones del Alcalde</u>**

Alkateordeak izendatzen dituen antolamendu-dekretuaren berri eman du Alkateak, eta honako hauek izango dira: Maite Olatziregi Esparza eta bigarren alkateordea, Agin Rezola Laburu.

El Alcalde da cuenta del decreto de organización por el que procede al nombramiento de los tenientes de Alcalde en las personas de Maite Olatziregi Esparza y como segundo teniente alcalde Agin Rezola Laburu.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2011ko ekainaren 30ean

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**